# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Gai nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Asuntos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduak 7**

**Vitoria-Gasteiz, 7 de diciembre de 2016**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@euskadi.eus

**Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak**

## EUSKADIKO AGREGAKINEN MAHAIA ERATU DA

Eusko Jaurlaritzak Agregakinen Mahaia eratu du, sektorearen aho batezko eskaerari erantzunez. Eztabaidarako eta akordiorako foro formal eta iraunkor honetan Euskadin agregakinak erauzi eta prozesatzen aritzen diren eragile nagusiek parte hartuko dute.

Ez da ahantzi behar agregakinak bigarren kontsumo-ondasuna direla uraren atzetik, eta gizarte modernoen garapenerako elementu erabakigarria dira, beraz.

Ingurumenaren eta meatzeen arloko agintarien, sektorearen eta kontsumitzaile nagusien arteko topagune honek estandar tekniko eta ingurumeneko gorenak mantentzen jarraituko duen planifikazioa eta ustiapena ahalbidetuko ditu.

Horregatik, Euskadiko Agregakinen Mahaia entzuteko, koordinatzeko, kontsultatzeko eta aholkularitza teknikoa emateko erakundearteko organo bat da, EAEko meatzaritza-, garraio- eta ingurumen-administrazioena eta sektoreko eragile adierazgarrienena, eta Euskal Autonomia Erkidegoko meatzaritza-politikak diseinatzea du helburu.

Bere aldetik, Euskadiko Agregakinen Mahaiaren Lantaldea Euskal Autonomia Erkidegoko erakundearteko organoa izango da, eta hortxe diseinatu, eztabaidatu eta landuko dira arlo horretan jarduteko proposamen teknikoak eta administratiboak.

Dekretu hau lantzerako orduan, erakunde hauei guztiei egin zaie kontsulta: Ingurumenaren arloan eskumena duten sailei, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamenduari, ,Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundiei, eta sektoreko elkargo eta ordezkaritza-elkarteei.

**Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak**

## EUSKO JAURLARITZAK ETA ESTATUKO GOBERNUAK NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZAKO ESTATISTIKAREN ALORREAN IZENPETUTAKO HITZARMENAREN EGUNERAKETA

- **Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza alorretako estatistiken efizientzia dakar eta datuen harmonizazioa eta bateragarritasuna ahalbidetzen du.**

Pasa den abenduaren 7an egin den kontseilu bileran, Eusko Jaurlaritzak erabaki du Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioarekin estatistika alorrean izenpetuta duen hitzarmenarekin jarraitzea. Helburua da administrazio izenpetzaileen lankidetza eremua eguneratzea eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza arloetan estatitisten efizientzia bultzatzea.

Akordioari esker errazagoa da bakoitzaren eskumenen ondorioz lantzen diren estatistikak bateratzea eta alderatzea, bai eta informazio iturri bakarra ezartzea ere, informazioak bikoiztea, desadostasunasunak eta informatzailea molestatzea ekiditeko eta programa estatistikoa gauzatzeko kostua murrizteko.

Hitzarmenak, zeinak eduki ekonomikorik ez baitu, 2017ko ekitaldian batera egin beharreko lana ezartzen du eta aipatzen du, zehazki, ustiategien, enpresen, merkatuen eta beste hainbat alderdiren gaineko informazioa bildu eta datu horiek grabatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan balidatzeko beharrezkoak diren zereginak.

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### 9 MILIOI EURONEN LAGUNTZAK ARDOGINTZAREN SEKTOREA KANPOAN SUSTATZEKO

- **18 milioi euroren inbertsioak aurreikusten dira, dibulgazio kanpainak egiteko, azoketan parte hartzeko eta merkatu berriak aztertzeko.**
- **Helburua da ardogintzaren sektorea lehiakorragoa egitea kanpoan eta nazioarteko merkatuan posizionatzen laguntzea.**

Abenduaren 7an egindako Kontseiluan, 2017ko ekitaldian ardogintzako produktuen informaziorako eta sustapenerako ekintzak eta programak hirugarren herrialdeetan garatzeko laguntzaz iragarriz Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak emandako agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak.

Kalkulatzen da 9 milioi euro erabiliko direla sail hau nekazaritzako elikagaien euskal industria oro har kanpoan lehiakorragoa izan dadin eta nazioarteko merkatuetan presentzia handiagoa eduki dezan garatzen ari den estrategian beste urrats bat gehiago emateko.

FEAGA Europar Erkidegoko fondotik etorriko da diru hori, eta laguntza horiekin kanpoan sustapen lanak egiteko beharko diren inbertsioak finantzatuko dira, kalkuluen arabera datorren ekitaldian 18 milioi euro ingurukoak izango baitira, pertsona edo erakunde onuradunek gutxienez kopuru horren %50 jarriko dutelarik.

### Diruz lagundu daitezkeen ekintzak

Gai hauekin zerikusia duten ekintzak eta jarduerak lagundu ahal izango dira diruz:

- Harreman publikoak eta sustapen eta publizitate neurriak, bereziki erkidegoko produktuek kalitateari, elikagaien segurtasunari eta ingurumenari dagokienez dituzten abantailak nabarmentzeko direnak.
- Nazioartean garrantzitsuak diren azoka eta erakusketetan parte hartzea.
- Informazio kanpainak, bereziki jatorri izendapenen gaineko erkidegoko sistemen gainean, eta adierazpen geografikoen eta ekoizpen ekologikoen gainean.
- Merkatu berrien azterketak, irteera komertzial berriak bilatzeko beharrezkoak direnak.
- Sustapen eta informazio neurrien emaitzen ebaluazioa.

### Aurreko urteetako laburpena

2014az geroztik, guztira 138 enpresak eskatu dituzte laguntza hauek, eta 25 milioi euroren diru laguntzak eman zaizkie 51 milioi euro baino gehiagoren inbertsioetarako.

| Ekitaldia FEAGA | Enpresa kop. | Gastua (€) | Diru laguntza (€) |
|---|---|---|---|
| 2014 | 41 | 14.247.075,00 | 7.123.537,50 |
| 2015 | 47 | 18.419.030,60 | 9.209.515,30 |
| 2016 | 50 | 17.717.637,99 | 8.858.819,00 |

**Eskabideak eta epeak**
Laguntza horiek eskuratzeko eskabideak 2017ko otsailaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari zuzenduta. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituren Sailaren bulegoetan aurkeztuko dira, Donostia-San Sebastian kaleko 1ean (01010 Vitoria-Gasteiz) edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein lekutan. Eskabidearen eredua hemen dago eskuragai: http: //www.euskadi.eus

## LAGUNTZA FINANTZARIOA NEKAZARITZAKO SINDIKATUENTZAT

Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatu izaerako Nekazaritzako Erakunde Profesionalentzako laguntzak iragarri ditu 2016ko ekitaldirako, Euskal Autoniomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin solaskide sozialaren lanak garatu ditzan nekazaritzako euskal sektoreari lotutako gaien gainean eta sektoreari eta bere afiliatuei aholkularitza zerbitzua ematen jarraitzeko. Horretarako, 2016ko ekitaldian guztira 201.000 euro zuzenduko dira horretara.

Horretarako itzuli beharrik gabeko fondo ekonomikoak emango dira, Nekazaritzako Erakunde Profesionalek aholkularitza organo eta lantalde hauetara joateko eta parte hartzeko sortzen dituzten gastuak ordaintzeko:

- Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Kontseilua eta Batzorde Sektorialak.
- Landaberriren baitan sortutako lantaldeak.

Eskabideak Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailen menpeko Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritzari zuzenduko zaizkio, eta Sailaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, Lakua I eraikinean (Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz), 3. Solairuan, dela zuzenean, dela Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bidetatik.

Laguntza horiek lortu ahal izateko eskabideak aurkezteko epea hamabost egunekoa da, agindua argitaratzen den egunaren biharamuentik zenbatzen hasita.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

# GOBERNU KONTSEILUAK EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMA IRAGARRI DU

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburu den Beatriz Artolabalek eskatuta, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 'Euskadiko Gazteak Lankidetzan' programaren 2017ko edizio berriaren deialdi berria antolatzea onartu du. Lankidetza-programa honetan 22 eta 30 urte arteko 100 euskal gazteek hainbat herritan burutuko diren garapenerako ekitaldietan lan egiteko aukera zabaldu nahi da Gobernuz Kanpoko Erakundeekin kolaboratuz.

Helburu honekin Eusko Jaurlaritzak 155.000 euro arte bideratuko ditu, parte-hartzaileen bidaien eta, kasua denean, bisa kosteak ordaindu ahal izateko.

Eskariak Internet bidez bideratu ahal izango dira www.gazteaukera.euskadi.eus webaren bitartez edo deialdiaren dokumentu ofiziala aurrez aurre aurkeztuz.

Eskariak aurkezteko epea agindu hau martxan jartzen denetik 40 egunekoa izango da.

**Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei deialdia**

Kontseilu berea eta Artolabal Sailburuak eskatuta, Eusko Jaurlaritzak Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei zuzendutako 'Euskadiko Gazteak Lankidetzan' programarentzako proiektuak aurkezteko deialdia aprobatu du.

**Hezkuntza**

## 6 MILIOI UDALENTZAKO DIRU-LAGUNTZATAN, IKASTETXEETAN HOBEKUNTZAK EGITEKO (UDALAGUNTZA-2016)

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza sailburuaren proposamenez onartu du, hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeak dauden udal jabegoko eraikinetan obrak egitera bideratutako gastuak finantzatzeko diru-laguntzak deitzen dituen agindua. Udalaguntza-2016 izenez ezagutzen den deialdi honek 6 milioi euroko diru-kopurua du.

Udalaguntza-2016 deialdian parte hartu ahal izango dute aurrerago aipaturiko ezaugarriak betetzen dituzten ikastetxeetan hobekuntza lanak egiteko proiektuak aurkezten dituzten Euskadiko udalek. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren diru-laguntza balorazio-batzodeak onarturiko aurrekontuaren %60koa izango da. Agindu honen bidez finantzatu ahal diren obrak 2016ko urtarrilaren 2 eta 2017ko abuztuaren 31 bitartean hasi beharko dira eta 2017ko abenduaren 31 baino lehenago bukatuak egon behar dute.

Udalaguntza deialdiak ikastetxeen instalazioetan hobekuntzak burutzeko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta tokiko korporazioen arteko koordinazioan du sorrera. Elkarlan honen helburua da hezkuntzara bideratutako bitartekoen eraginkortasun handiagoa lortzea, eta era berean, baliabide publikoen optimizazioa ere ahalbidetzen du.

## IKASTETXE PUBLIKOA AIAN

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, sailburuaren proposamenez, Euskal Autonomia Erkidegoan Aiako udalaren menpe ikastetxe publiko sortzea onartu du.

2015-16 ikasturtean Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutu hau sortu eta funtzionatzen hasten da. Ikastetxe honetan Oinarrizko lanbide-titulua Metalezko Elementuen Fabrikazioan (Soldadura-Galdarangintza)
ematen da

## Hezkuntza

### 776.314 EURO LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEN HORNIKUNTZARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du 2016ko ekitaldirako diru-laguntzak deitzen dituen agindu bat, ikastetxe pribatuen eta Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten udal titularitateko ikastetxe publikoen hornikuntzarako.

Deialdi honek, 776.134 €ko zenbateko globala duenak, Informatika eta Komunikazioak lanbide-arloko heziketa-zikloen hornikuntza gaurkotzea du helburu; gainera, produkzio-sektorearen gaurko bilakaeraren arabera garapen teknologiko aurreratuagoa duten industria-sektoreko heziketa-zikloen hornikuntza ere gaurkotu nahi du.

Itunpeko ikastetxeek eta udal titularitateko ikastetxe publikoek, 2016-2017ko ikasturtean Informatika eta Komunikazioak lanbide-arloko erdi edo goi mailako Lanbide Heziketako heziketa-zikloren bat edo industria-sektoreko heziketa-zikloren bat itunduta edo hitzartuta baldin badute, eskatu ahal izango dituzte diru-laguntzak.

### 4.690.000 EURO UDAL HAUR ESKOLENTZAT

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, sailburuaren proposamenez, 2016-17 ikasturtean diru-laguntzak emateko deialdia egiten duen eta 0 eta 3 urte arteko haur eskolen titular diren toki korporazioei Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailarekin hitzarmenak sinatzeko deia egiten dien Agindua onartu du. Diru-laguntzak haur eskola horiek mantentzeko kostuak finantzatzeko izango dira.

Diru-laguntza hauen onuradun izango dira haur eskolen titular diren Euskadiko udalak, beti ere haur eskola horiek 297/2002 Dekretua, abenduaren 17koa, indarrean sartu baino lehenagokoak badira (0-3 urte arteko haur eskolak arautzen dituen Dekretua).

Deialdi honek 4.690.000 euroko diru kopurua du. Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua EHAAn argitaratu eta biharamunean hasita.

**Desarrollo Económico e Infraestructuras**

## SE CONSTITUYE LA MESA DE ÁRIDOS DE EUSKADI

El Gobierno Vasco ha constituido la Mesa de Aridos, que cumple una demanda unánime del sector. Constituye un foro formal y permanente de debate y acuerdo en el que están presentes los principales agentes involucrados en la extacción y procesamiento de los Aridos en Euskadi.

No hay que olvidar que los aridos son el segundo bien de consumo tras rel agua y por tanto suponen un aspecto decisivo para el desarrollo de las sociedades modernas.

Este punto de encuentro entre el sector, las autoridades medioambiental y minera y los principales consumidores, permitirá una planificación y explotación que siga manteniendo los mayores estándares técnicos y ambientales.
Por tanto la Mesa de los Áridos de Euskadi se configura como un órgano interinstitucional de audiencia, coordinación, consulta y asesoramiento técnico de las administraciones minera. de transportes y medioambiental vascas con los agentes sectoriales más representativos para el diseño de las políticas mineras de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
Por su parte, el Grupo de Trabajo de la Mesa de los Áridos de Euskadi se configura como el órgano interinstitucional de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el que se diseñarán, se debatirán y elaborarán las propuestas técnicas y administrativas de actuación en estas materias.
En la elaboración del presente Decreto han sido consultados el departamentos competentes en materia de Medio Ambiente y Ordenación Territorial del Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa y asociaciones representativas del sector.

**Desarrollo Económico e Infraestructuras**

## ACTUALIZACIÓN DEL CONVENIO ENTRE GOBIERNO VASCO Y ESTATAL EN MATERIA DE ESTADÍSTICA AGROGANADERA

- **Propicia la eficiencia en materia estadística en las áreas de agricultura, ganadería y pesca y facilita la armonización y compatibilidad de datos.**

En la reunión de consejo del pasado 7 de diciembre el Gobierno Vasco ha acordado la continuidad del convenio de colaboración que, en materia de estadística, mantiene con el Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente. El objeto es actualizar el ámbito de colaboración de las administraciones firmantes y propiciar la eficiencia en materia estadística en las áreas de agricultura, ganadería y pesca.

El acuerdo facilita la armonización y comparabilidad de las estadísticas elaboradas en virtud de las competencias respectivas, así como el establecimiento de una única fuente de recogida de información que evite duplicidades, divergencias y molestias al informante, y minimice el coste de ejecución del programa estadístico.

El convenio, que carece de contenido económico, establece la acción conjunta para llevar a cabo en el ejercicio 2017 y hace referencia en concreto a las funciones que se precisan para la recogida de información en las explotaciones, empresas, mercados, etc… así como para la grabación y validación de los mismos en el ámbito del País Vasco.

**Desarrollo Económico e Infraestructuras**

## AYUDAS POR VALOR DE 9 MILLONES DE EUROS PARA LA PROMOCIÓN EXTERIOR DEL SECTOR VITIVINÍCOLA

- **Se prevén unas inversiones de 18 millones de euros en campañas de divulgación, participación en ferias y estudios de nuevos mercados.**

- **El objetivo es incrementar la competitividad del sector vitivinícola vasco en el exterior y propiciar su posicionamiento en mercados internacionales.**

El Gobierno vasco ha aprobado, en su reunión de Consejo celebrada el 7 de diciembre, la orden de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras Arantxa Tapia, por la que se convocan para el ejercicio 2017 ayudas para el desarrollo de acciones y programas de información-promoción de productos vinícolas vascos en terceros países.

Con un importe estimado de 9 millones de euros, son un paso más en la estrategia que este departamento viene desarrolando de cara a incrementar la competitividad en el exterior de la industria agroalimentaria vasca en general y propiciar su presencia en los mercados internacionales.

Procedentes del fondo comunitario FEAGA, estas ayudas financiarán las inversiones necesarias en promoción exterior, cuya cuantía total para el próximo ejercicio se ha estimado en 18 millones de euros, de los que las personas o entidades beneficiarias aportarán al menos el 50%.

### Acciones subvencionables

Las acciones y actividades subvencionables serán las relativas a

- Relaciones públicas y medidas de promoción y publicidad que destaquen en particular las ventajas de los productos comunitarios en términos de calidad, seguridad alimentaria y respeto al medio ambiente.
- Participación en ferias y exposiciones de importancia internacional.
- Campañas de información, en particular sobre los sistemas comunitarios de denominaciones de origen, indicaciones geográficas y producción ecológicas.
- Estudios de nuevos mercados, necesarios para la búsqueda de nuevas salidas comerciales.
- Evaluación de los resultados de las medidas de promoción e información.

### Resumen años anteriores

Desde el año 2014, un total de 138 empresas han solicitado estas ayudas, concediéndoles subvenciones por un valor superior a 25 millones de euros, para inversiones que han superado los 51 millones

| Ejercicio FEAGA | nº empresas | Gasto (€) | Subvención (€) |
|---|---|---|---|
| 2014 | 41 | 14.247.075,00 | 7.123.537,50 |
| 2015 | 47 | 18.419.030,60 | 9.209.515,30 |
| 2016 | 50 | 17.717.637,99 | 8.858.819,00 |

**Solicitudes y plazos**

Las solicitudes para acceder a estas ayudas se deben presentarán antes del 15 de febrero de 2017 y a la Dirección de Calidad e Industrias Alimentarias y se presentarán en las dependencias del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras sitas en la calle Donostia-San Sebastián nº 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, o bien en cualesquiera de los lugares previstos en el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. El modelo de solicitud está disponible en: http: //www.euskadi.eus

**Desarrollo Económico e Infraestructuras**

## APOYO FINANCIERO A LOS SINDICATOS AGRARIOS

El Consejo del Gobierno Vasco ha convocado, para el ejercicio 2016, las ayudas a las Organizaciones Profesionales Agrarias de carácter sindical de la Comunidad Autónoma del País Vasco, por el desarrollo de las funciones de interlocución social con la Administración General de la Comunidad Autónoma en materias referentes al sector agrario vasco y para mantener sus actividades de asesoramiento al sector y a sus afiliados. Para ello, se destinarán un total de 201.000 euros a los largo del ejercicio 2016.

Estas ayudas consisten en entregas no reintegrables de fondos económicos dirigidas a indemnizar los gastos generados por las Organizaciones Profesionales Agrarias como consecuencia de su asistencia y participación en los siguientes órganos consultivos y grupos de trabajo:

- Consejo Agrario y Alimentario de Euskadi y Comisiones Sectoriales.
- Grupos de trabajo creados en el seno de Landaberri.

Las solicitudes se formularán en instancia dirigida a la Dirección de Agricultura y Ganadería del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras y se presentarán en el Registro General del Departamento, en la calle Donostia-San Sebastián 1, Lakua I - 3ª planta, 01010 Vitoria-Gasteiz, bien directamente o bien por cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
El plazo de presentación para acogerse a estas ayudas es de quince días desde la fecha siguiente a la de la publicación de la orden.

**Empleo y Políticas Sociales**

## EL CONSEJO DE GOBIERNO CONVOCA EL PROGRAMA 'JUVENTUD VASCA COOPERANTE'

A petición de la Consejera de Empleo y Políticas Sociales, Beatriz Artolazabal, el Consejo de Gobierno ha aprobado la convocatoria del programa 'Juventud Vasca Cooperante' en su edición de 2017. El programa consiste en facilitar el desplazamiento de un máximo de 100 personas en edades comprendidas entre 22 y 30 años a países en los que se desarrollan acciones de cooperación con diversas Organizaciones No Gubernamentales de desarrollo.

Para este fin el Gobierno destinará hasta 155.000 euros, destinados a para sufragar los gastos de viaje y, en su caso, del visado de entrada en el país de destino de las personas seleccionadas.

Las solicitudes podrán realizarse por Internet, a través de www.gazteaukera.euskadi.eus o presentando de forma presencial el impreso oficial de la convocatoria.

El plazo para la presentación de solicitudes será de 40 días a contar desde el día que surta efectos la orden.

**Convocatoria a entidades de cooperación al desarrollo**

En la misma sesión y a petición de la Consejera Artolazabal se ha aprobado la convocatoria a las entidades de cooperación al desarrollo para la presentación de proyectos para el programa 'Juventud Vasca Cooperante'.

## Educación

### 6 MILLONES EN SUBVENCIONES A LOS AYUNTAMIENTOS PARA MEJORAS EN CENTROS EDUCATIVOS (UDALAGUNTZA-2016)

El Consejo de Gobierno en su reunión de hoy, a propuesta de la Consejera de Educación, ha aprobado la Orden por la que se convocan ayudas para la financiación de los gastos destinados para la ejecución de obras en edificios de propiedad municipal en los que se ubican centros docentes dependientes de la administración educativa. Esta convocatoria, conocida con el nombre Udalaguntza-2016, cuenta con un importe global de 6.000.000 euros.

Podrán acogerse a la convocatoria Udalaguntza-2016 aquellos ayuntamientos de Euskadi que presenten sus proyectos de obras de mejora en centros docentes de las características anteriormente citadas. La subvención del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura cubrirá el 60% del presupuesto aprobado por la comisión de valoración. Las obras susceptibles de ser financiadas por esta orden han de haberse iniciado entre el 2 de enero de 2016 y el 31 de agosto de 2017 y deben estar finalizadas antes del 31 de diciembre de 2017.

La convocatoria Udalaguntza nace de la coordinación entre el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco y las corporaciones locales en las actuaciones de mejora de instalaciones educativas. Esta cooperación tiene como objetivo una mayor eficacia de los recursos destinados a la educación, y logra la optimización de los recursos públicos existentes.

### CENTRO DOCENTE PÚBLICO EN AIA

El Consejo de Gobierno ha aprobado, a propuesta de la Consejera de Educación, el Decreto por el que se dispone la creación del centro docente público de Aia de titularidad municipal en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En este Instituto Municipal de Formación Profesional Básica, que se crea y pone en funcionamiento con efecto al curso escolar 2015-16, se imparte el ciclo formativo: Profesional básico en Fabricación de Elementos Metálicos (Soldadura-Caldereria).

**Educación**

## 776.314 EUROS PARA EQUIPAMIENTO DE CENTROS DE FORMACIÓN PROFESIONAL

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la Consejera de Educación, una Orden por la que se convocan subvenciones, correspondientes al ejercicio 2016, para equipamiento de centros privados y en centros públicos de titularidad municipal que imparten ciclos formativos de Formación Profesional.

El objeto de esta convocatoria, por un importe global de 776.134 €, es el de actualizar el equipamiento de los ciclos formativos de la familia profesional de Informática y Comunicaciones, además de los ciclos formativos del sector industrial, que tienen un desarrollo tecnológico más avanzado de acuerdo con la actual evolución del sector productivo.

Podrán solicitar las subvenciones los centros concertados y los centros públicos de titularidad municipal que tengan concertado o conveniado, en el curso 2016-2017, algún ciclo formativo de Formación Profesional de grado medio, o superior, perteneciente a las familia profesional de informática y comunicaciones o algún ciclo formativo del sector industrial.

## 4.690.000 EUROS PARA ESCUELAS INFANTILES DE TITULARIDAD MUNICIPAL

El Consejo de Gobierno ha aprobado, a propuesta de la consejera de Educación, la Orden por la que se convocan ayudas económicas para el curso 2016-17 para corporaciones locales titulares de escuelas infantiles de 0 a 3 años para la formalización de convenios de colaboración entre el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura y las citadas corporaciones. Las ayudas estarán destinadas a financiar los costes de mantenimiento de las citadas escuelas.

Serán beneficiarios de estas ayudas los ayuntamientos de Euskadi titulares de escuelas infantiles creadas con anterioridad a la entrada en vigor del Decreto 297/2002, de 17 de diciembre (por el que se regulan las escuelas infantiles de cero a tres años).

Esta convocatoria cuenta con un importe económico de 4.690.000 euros. El plazo de presentación de solicitudes será de un mes a partir del día siguiente de la publicación de la Orden en el BOPV.